

# Emakumeentzako jabeakuntza eskola



**Getxo**

2013-2014 IKASTURTEA



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUJA  
ERMUJA HIRIKO UDALA



**Getxo**  
*bizi ezazu*



UNIBERSITATIAKO UDALAKA  
ERMUJA

# Emakumeentzako jabekuntza eskola

## GETXO

### 2013-2014 IKASTURTEA

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren hamargarren edizioa aurkeztera gatozkizue.

Ikastaro guztiak Eskolaren lokalean eskainiko dira, Martikoena kaleko 16. zenbakiko lehenengo solairuan (Alangoko anbulategiaren ondoan).

Gogorarazi nahi dizuegu eskola orduetan bakarrik egoten dela zabalik eta Berdintasun Zerbitzuak Foruen kaleko 8. zenbakian daukala bulegoa.

**Oharra:** Arretaz irakurri izen-emateei buruzko informazioa, aurtengoan aldaketa handiak izango baitira.

**Informazioa:** ☎ 94 466 01 36  
berdintasuna@GETXO.NET



## Komunikazio lerroa

### Jende aurrean hitz egiteko teknikak

(20 ordu) Euskeraz



Martxoaren 13tik maiatzaren 29ra



Ostegunetan, 19,00etatik 21,00etara

**Irakaslea:** Esti Redondo    **Prezioa:** 5 €

Ikastaroan zehar gure beldurrak eta komunikazioan esku hartzen duten elementuak zein diren identifikatu behar dugu, horrela, bere ezagutza eta entrenamendutik teknikak eskura ditzagun eta jendaurrean hitz egiteko zailtasunak gainditzeko edozein esparrutan.

Halaber, hizkuntzak errealitateaz dugun ikuspegian nola eragiten duen ere aztertuko dugu, eta hizkuntza eta komunikazioaren erabilera ez sexista egiteko proposatzen diren alternatibak ikusiko ditugu.



## Emakumeen Nortasuna eta subjektibotasuna lerroa

### Indarkeria ate azpitik sartzen uzten al dugu? (20 ordu)

- 📅 Urtarrilaren 14tik martxoaren 18ra
- 🕒 Asteartetan, 18,00etatik 20,00etara

**Irakaslea:** Inma Merino    **Prezioa:** 5 €

Gorputz-hizkuntzaren bidez geure buruekin eta geure bikoteekin erlazionatzeko modua aztertuko dugu. Ni pertsonala, harremanaren barruan horri eusteak eta elikatzeak duen garrantzia eta ez galtzeko zer muga jartzen ditugun landuko ditugu.

Amodiozko loturak eta bikoteen arteko harremanak ere aztertuko ditugu. Gure bikote motari buruzko gogoeta egingo dugu, eta boterea edota tratu txarrak dauden ikusiko dugu. Botere eta berdintasunezko harremanei buruzko hausnarketa egingo dugu. Horretarako, mehatxatu eta Jabekuntza prozesu pertsonalean eta kolektiboan mugatzen gaituzten arriskuak aztertuko ditugu.

### Desprintzesatze tailerra (18 ordu)

- 📅 Urriaren 23tik abenduaren 18ra
- 🕒 Asteazkenetan, 18,30etatik 20,30etara

**Irakaslea:** Irantzu Varela (Faktoria Lila)    **Prezioa:** 5 €


Tailer honetan lau gai-multzo landuko ditugu: emakumeei ezartzen zaigun lotu ezinezko edertasunaren ideala; desberdintzen gaituen eta norbere autonomia eta askatasuna kentzen diguten harremanetan nahastea ahalbidetzen diguten maitasun erromantikoaren gizarte -eta kultura-erakuntza; lanaren eta enpleguaren banaketa sexista, kulpa sententzio batetik zaintza-zereginen ardura ematen diguna eta enplegu-merkatuan bigarren mailan eta maila prekarioan kokatzen gaituena; desioarekin dugun harremana eta geure desioak aitortzeko eta asetzeko zailtasuna, besteen desioak lehenago asetzeko joerarekin kontrajarriz.


Guztiekin ere, subjektu pasibotzat etikotzen gaituzte eta zer-nolako bizimodu izan nahi dugun erabakitzeko zailtasunak jartzen jarraitzen digute. Dinamika horiek emakume izateak zer esan nahi duenari buruzko gure bizipenari nola eragite dioten aztertuko dugu eta bakoitzak izan nahi duen emakumea izateko askatasuna edukitzeko tresnak planteatuko ditugu.



## Elkartasuna eta trukea munduko emakumeekin lerroa

### Jabekuntzarako kultura arteko gunea

 Urtarrilaren 25ean, otsailaren 15ean, martxoaren 15ean, apirilaren 5ean eta 26an, maiatzaren 17an eta 31n

 Larunbatetan, 17:00etatik 20:00etara


**Irakasleak:** Cony Carranza Castro, Itziar Gandarias, Saioa Hernández eta Maya Amrane **Prezioa:** 5 €

Gune hau bi beharretatik sortzen da: batetik, bertako emakumeen eta etorkinen topagune bat mantentzeko beharra, sareak sortzea eta aurreiritziekin eta estereotipoekin apurtzea erraztuko diguna; eta, bestetik, orokorrak diren eta gure emakume-erakuntza zeharkatzen duten gaiet buruz hausnarketa egiteko beharra, kultura bakoitzak berezko dituen hainbat berezitasun gehitu arren.

Horrela, emakumeen arteko harremanetan sortzen diren tentsioak aztertuko ditugu lehiakortasunetik eta areriotasunetik adiskidetasunera eta sororitateara; gorputzen eraikuntza orokorrari eta sexualitateari buruzko hausnarketa egingo dugu; eta erlijioak aztertuko ditugu gizarte-baloreetan eta emakumeen bizitzan eta mailan eragiten duten faktore gisa, zeinak, beren erreferente erlijiosoetatik urrundu gabe emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen aurka borrokatzen duten emakumeen zenbait mugimendu ezagutzera eramango gaituen.

### Feminismoarentzako erronka berriak: emakume migratzaileen ahotsak barnebiltzea (8 ordu)

 Otsailaren 21 eta 22an

 Ostirala, 16,30etatik 20,30etara  
Larunbata, 10,00etatik 14,00etara


**Irakaslea:** Itziar Gandarias **Prezioa:** 5 €


Emakume migratzaileen taldea mutu, bateratu eta homogeneo gisa adierazi ohi da eta oso gutxitan xede-herrialdeetako agertoki sozio-politikoan negoziatzen, iritzia agertzen, zalantzan jartzen eta parte hartzen duten eragile sozial gisa. Batetik, egun bizi dugun krisi sistemati-koko testuinguruan migratutako emakumeen eguneroko adierazpenak aztertuko ditugu ikuspuntu biktimistatik urruntzen diren ikuspegi teoriko-praktikoetatik. Bestetik, subjektu politiko feministaren krisiari buruzko eztabaidak landuko ditugu, feminismo hegemonikoaren hormak zabaltzeko egungo aukerak eta zailtasunak aztertuz eta feministen beste ahots eta praktika batzuk gehituz eta aitortuz.



## Feminismoa lerroa

### Autodefentsa feminista (12 ordu)

 Urriaren 18 eta 19an

 Ostirala, 16,00etatik 20,00etara.  
Larunbata, 10,00etatik 14,00etara;  
eta 15,30etatik 19,30etara

**Irakaslea:** Maitena Monroy    **Prezioa:** 5 €


**Jantzi erosoak eraman**

Erasoak identifikatzen, eta indarkeriak -bere alderdi guztietan- dituen jatorria eta eraikuntza, eta norbanakoan eta taldean dituen ondorioak aztertzen ikasiko dugu. Eguneroko bizitzan gertatzen diren eraso egoerak konpontzeko eta erantzuteko mekanismoak ikasiko ditugu.

Espazio bat sortu gura dugu, geure eskubide eta gaitasunetaz jabetzeko, konfiantza eta segurtasuna sustatzeko, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

### Genero-indarkeriaren aurkako Lege integralaren aplikazio efektiboaren azterketa jende-eskubideen ikuspegitik (8 ordu)

 Urtarrilaren 17 eta 18an

 Ostirala, 16,30etatik 20,30etara.  
Larunbata, 10,00etatik 14,00etara


**Irakaslea:** María Naredo    **Prezioa:** 5 €

Emakumeen giza eskubideen nazioarteko arauetan ezarritakoa oinarri harturik, estatu espainiarrean loteslea dena, genero-indarkeriaren aurkako Lege integralaren aplikazio efektiboa aztertuko da, indarrean daramatzen 9 urtetan. Datuak eta informazioa aurkeztuta, legearen egikaritzan egindako aurrerapenak eta izandako eragozpen nagusiak identifikatuko dira honako alderdi hauetan: detekzioa osasun-arloan, arreta integrala biktimei, babesa eta justizia eta ordain-eskubidea lortzea. Aipamen berezia egingo zaio legean aurreikusitako diskriminaziorik ezaren printzipioari eta genero-indarkeriaren aurrean emakume migratzaileen giza eskubideak babesteko neurrien bilakaera aztertuko da. Saioa gomendioak aurkeztuz eta parte-hartzaileak haiek hausnartzera gonbidatuz amaituko da.

## Feminismoa lerroa

### Gazteak eta indarkeria matxista (20 ordu)

 Martxoaren 5etik maiatzaren 21era

 Asteazkenetan, 18,00etatik 20,00etara

**Irakaslea:** Mila Amurrio    **Prezioa:** 5 €

Ikastaro honek gure gazteen arteko harreman eta interakzio afektiboetan eta sexualetan genero-desberdintasunak nola gertatzen eta errepikatzen diren arrisku eta indarkeria psikologiko, sexualeko eta, baita, fisikoko egoerei bide emanez, ulertzen laguntzea du xede; beraien identifikatzeko gai ez diren egoerak. Horrek edozein harremanetan gertatzen diren gatazken aurrean ezagutzen ez dituzten egoeratan jartzen ditu eta, ondorioz, ez dakite egoera horiek nola kudeatu.

Ikastaroan parte hartzen duten pertsonak aldez aurretik jasotako ulermenetik beren harreman propioei eta inguruko harremanei buruzko hausnarketa egingo dute eta hausnarketa horrek gerta daitezkeen genero-desberdintasunen errepikapena identifikatzen lagunduko diete. Horrela, beren eguneroko bizitzan aldaketen eragile bihurtzeko aukeran pentsatu ahal izango dute bere ingurune hurbilena eremu horretan sentsibilizatuz eta haiengan eraginez.



## Osasuna lerroa

### Zaindu geure burua zainduz (16 ordu)

 Urriaren 16tik abenduaren 4ra

 Asteazkenetan, 10,00etatik 12,00etara


**Irakaslea:** Kontxi López    **Prezioa:** 5 €


Tailer honen helburua da amona zaintzaileen rolari, norberak denborak izateko eskubideari edo berdintasunean eta errespetuan oinarrituz familia-harremanen negoziatioari buruzko gogoeta sustatzea.

Halaber, tresnak eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, gorputzaren, emozioen eta norberaren nahien kontzientziatik abiatuz. Zaintzea ez da beharra; negoziatu beharreko aukera da, norberaren beharra alde batera utzi gabe.

Hartu atsedenaldia eta parte hartu.

## Zuk (oraindik) ez dakizun zer daki zure gorputzak? (27 ordu)

 Ostiraletan, hilabetean behin, 17:30etik 20:30era

 Azaroak 8 eta 29an, abenduak 13, urtarrilak 10, otsailak 7, martxoak 7, apirilak 4, maiatzak 9 eta 30ean

**Irakaslea:** Patricia Verdés    **Prezioa:** 10 €


Badakigu gure gorputzak jakituria preziatua gordetzen duela, baina... badakizu entzuten?

Badakigu emakumeon gorputzetan hainbat prozesu bizi ditugula edo bizi ditzakegula, hala nola, hilekoa, menopausia, haurdunaldia... Baina, ba al dakizu prozesu horiek ezagutzen eta zaintzen? Badakigu gorputz bakoitzaren formak bakarrak direla... Ba al dakizu zeureak estimatzen? Badakigu patriarkatuak gure gorputzarentzat eta osasunarentzat kaltegarriak diren mezuak jaurtitzen dituela... Baina, ba al dakizu mezuok bereizten eta sinesgarritasuna kentzen?

Hausnarketarako eta praktikarako espazio honetan, gure gorputzen neurrirako osasun praktikak sortzeko asmoarekin, ezbaian jarri, esperimendu eta ikertu egingo dugu. Horretarako, emakumeen osasun mugimendutik sortutako eta gizonarengan zentratzen ez diren praktiken eta baliabideen laguntza izango dugu.

## Gure menopausia modu osasungarrian bizitzea (8 ordu)

 Azaroaren 23an

 Larunbata, 10,00etatik 14,00etara; eta 15,30etatik 19,30etara

**Irakaslea:** Laura Juarros    **Prezioa:** 5 €

Tailer honen bitartez, emakumeen menopausiaren inguruan gure kulturaren eman ohi den sexismoa, edadismoa eta estereotipoak zalantzan jarri nahi ditugu; bizitzako fase horretan integrazio pertsonal handiago baterako gakoak eman; emakumeen bizitzako une horretan gertatzen diren aldaketak elkarrekin hausnartu, haiei modu osasungarriagoan eta bizia-agoan aurre egiten ikasiz eta genero-aginduei buruzko hausnarketa kritikoa eginez; emakumearentzako aromaterapiaren eta lore bidezko terapiaren ekarpenak eta menopausiarako berariazko ariketa energetikoak ezagutu.

Tailer hau beste emakumeekin batera aukera berriak arakatzeko eratu da, gure bizitzako aldaketen protagonista gisa jarriz eta ez haien biktimatzat eta osasunaren, protagonismoaren eta jabeakuntzaren ikuspegi feministatik egindako ekarpenak jasoz.



## Kultura berdefinitzen lerroa

### Emakume artistak ikuspegi feministatik (34 ordu)

 Urriaren 24tik otsailaren 27ra  Ostegunetan, 18,30etatik 20,30etara **Irakaslea:** Dora Salazar **Prezioa:** 10 €

Tailerra lan-talde aktibo eta parte-hartzaile gisa planteatzen da, non, hainbat emakume artisten ibilbideak aztertuko diren, baina ez indibidualista gisa, baizik eta aurretik existitzen diren jendarte-errealitateen isla. XIX. mende bukaeratik edo 50eko hamarkada hasieratik hasiko gara, taldearen ezagutzaren arabera. Horretaz gain, erakusketetara, artisten estu-dioetara, arte-galerietara, kultur zentroetara, museoetara eta abar bisitaldiak egingo dira.

Funtzioa emakume horiek artearen historian egindako lana nabarmentzea eta emakume gisa gure historian izan duten eragina aztertzea da.

1970eko hamarkada hasieran, artista, kritikari eta historialari feministak artearen historiaren oinarrian dauden supostuak zalantzan jartzen hasten dira, alegia, gizonak sortutako arte heroikoa, non, emakumeak sistematikoki baztertuak izan diren.



Arteetan feminismoa identifikatuta sentiaraziko gintuen harreman historiko bat ezartzeko eta historia berreskuratzeko metodologia soziologiko eta politiko baten azterketarekin hertsiki lotutako mugimendu feminista garaikideetan erne zen.





## Autonomia suspertzen lerroa

### Kotxe mekanika tailerra (6 ordu)



-  Martxoak 25 eta apirilak 1 eta 8
-  Asteartetan, 18,00etatik 20,00etara

**Irakaslea:** Silvia Macho **Prezioa:** 5 €

Hauek dira, besteak beste, ikastaroaren helburuak: errekuntzako motorra nola dabilen ikastea, dieselaren eta gasolinaren arteko desberdintasunak jakitea, eta autoaren osagaiak non dauden ikastea, esaterako, alternadorea, abio-motorra eta bateria.

Horrez gain, autoaren oinarrizko mantentze-lana egiten ikasiko dugu (iragazkiak, olioia eta balzatak aldatzen, baita gurpilak aldatzen ere zuzlatzen direnean).

### Bertso-eskola feminista (16 ordu) EUSKERAZ

-  Martxoaren 21etik apirilaren 11ra
-  Ostiraletan, 16,30etatik 20,30etara

**Irakasleak:** Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirrezaldegi **Prezioa:** 5 €

Generoak egiten dugun guztian eragiten digu. Are gehiago, egiten dugun hori, bertsolaritza bezala, tradizionalki gizonezkoen eremu izan bada. Gaur egun badira emakume bertsolariak, baina: zein da bizi duten errealitatea? Aurrez egituraturiko bertsolaritza moldean eroso sentitzen dira? Badute euren molde propioa garatzeko modurik? Nolako a zatekeen bertsolaritza emakumeek garatu izan balute? Zeintzuk dira emakumezko bertsolarien erronkak? Zer dute eskaintzeko? Zer borrokatzeko? Diskurtso feministak zer on eman diezaioke bertsolaritzari? Zein paper joka dezakete entzule, gai-jartzaile eta antolatzaileek honetan guztian? Nola errimatzen da berdintasunaren doinu librean?

Bertsolaritzan ere, ez gaiak, ez egoerak, ez bertsolarien bertsoak, ez entzuleen begi-belarriak... ezer ez da neutroa. Horregatik, bertso eskola feministan, lehenengo eta behin egungo bertsolaritza betaurreko moreekin aztertuko dugu. Eta ondoren, emakumeak subjektu dituen bertsolaritza landuko dugu, emakume izateko modu posible guztiei bertsolaritzan leku eginez, interesgarri zaizkigun gaiak jarriz eta barrua ukitzen diguten kontuekin umorea eraikiz, batez ere.



## Aurretiko izen ematea

Aurretik izena emateko, inprimaki bat bete beharko da Herritarren Arretarako Bulegoetan, edo [www.getxo.net](http://www.getxo.net) web orrialdearen bidez.

Plazak mugatuak dira, eta aurretik izena emandako emakumeen artean zozketatuko dira. Getxon erroldatutako emakumeek lehentasuna izango dute.

Onartutako zerrendak Villamonteko Kultur Etxean, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta <http://www.getxo.net/eu/igualdad> web orrian argitaratuko dira.



**Adi data hauei ikastaro guztietarako aurretiko izen-ematea irailaren 19tik 25era egingo da**

**Urria eta abendua bitartean hasiko diren ikastaroak**

**Onartutako zerrenda urriaren 3an argitaratuko da**  
**Matrikula:** urriaren 7tik 11ra bitartean

**Urtarrila eta maiatza bitartean hasiko diren ikastaroak**

**Onartutako zerrenda abenduaren 10ean argitaratuko da**  
**Matrikula:** abenduaren 16tik 20ra bitartean



## Matrikula

**Behin betiko matrikula Herritarren Arretarako Bulegoan egingo da** (bertan ordainketa egiteko errezeboia emango dizute banku edo ordainketa elektronikoaren bidez ordaindu ahal izateko).

Behin ordaindu ta gero, bajaran ematekotan ez da dirurik itzuliko.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten ikasleek, Gazte Txartela dutenek edo langabeziaren txartela dutenek, 5 € ordainduko dituzte ikastaroko.



**Aurretik izena emateko eta matrikula egiteko tokia**

**Herritarren Arretarako Bulegoak**

**Ordutegia:** 8:00etatik 14:00etara  
**Algorta:** Fueros, 1 Andra Mari: Benturillena, 17

**Ordutegia:** 8:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara (ostiral goizetan bakarrik)

**Algorta:** Juan Bautista Zabala, 6

**Romo:** Ama Mesedetako kalea, 13

Hautzaindegi zerbitzua egongo da eskaera egiten dutenentzat

